

Liburuak

KRITIKA

Intimitatea. Hanif Kureishi
Txalaparta. 150 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura
Amalia Alvarez Uria



... pila, pila, pila, patata tortilla!

NOLA HASIKO ZINATEKE maitasuna(ren amaiera)ri buruzkoak kontatzen? Zein hitz aukeratuko zenituzke hainbeste jorratu den gai bati buruzko begirada sinergari, interesgarri edo iradokitzailea emateko? Zer esan daiteke maitasunari buruz dagoeneko esan ez dena?

Hanif Kureishiren *Intimitatea* horrela hasten da: “Gaurik tristeena da hau, banoalako eta ez naizelako itzuliko”. Liburu honetan protagonistak kontatuko digu bere ordura arteko bizitza –bikotea, semeak eta etxea– utzi aurreko eguna nola pasatuko duen eta denbora horretan izango dituen gogoetak gurekin konpartituko ditu.

Maitasunaren gazi-goxoak aletzen ibili dira azken hiru mendeetako literatura, musika eta zinema. Hamaika bider irakurri-entzun-ikusitako digu zer den eta zer ez den maitatzea, zein mingarria den maitatzea eta zenbat merezi duen maitasuna ezagutzea.

Maitatzeko modu desberdinak agertu eta aldarrikatu izan dira azken mendean –gutxienez–, mugimendu feministak adibidez, askotan aipatu izan du maitasun errromantikoa deseraitzeko beharra dagoela, eredu berriak proposatzeko garaia dugula. Gai sakon eta konplexua digu mintzagai, hartu-eman kodetuen lurraldean.

Pertsonen arteko harremanetan interpretatzeko mila kode eta arau daude eta sexua ere kontuan hartzen

badugu moral bikoitzaren arazoa gehitu beharko diogu prestatzen ari garen plater bero honi. Gainera, gure jendartearen sentimenduak eta emozioak ezkutatu eta apaltzeko joerari begiratzen badiogu, gaia korapilatu eta zailtzen zaigu zinez.

Kureishik bere lanetan (antzerkian, zineman eta literaturan), curry usaineko Londresetik hitz egiten digu, aldiri edo errebaletako auzoetatik, behe eta erdi-mailako langileen ahoetatik, etorkinen seme-alaben eskarmentutik, gazte, gay eta emakumeen bizipenetatik, eta horrek *bestearen* ahotsa entzuteko aukera ematen digu, gaur egun G. Ch. Spivaken *subaltern*-ak hitz egin dezakeela erakutsiz.

Kokagune ezagun batean jartzen gaitu, egunero-kotasunak blaitzen ditu txoko guztiak eta oso hizkera eta tonu hurbila darabilenez erraz konektatzen dugu narratzailearekin. Honek bere ile urdinak eta tripa erakutsiko dizkigu, bere ahuleziak eta desirak, bere ohitura eta apeta txikiak, ezer baztertu edo disimulatu gabe.

Besteak beste leialtasuna, aitatasuna eta sakrifizioa-ri buruz egingo digu berba eta bere pentsamendua ingurukoaren iritziekin tartekatuko du. Duzunarekin konformatu behar zaren planteatuko du eta horrekin lotuta agertzen diren topikoak kontrajarriko ditu. Erljio kristauak eta aro individualistak duten pisua aztertuko du eta menpekotasunei aurrez aurre oso egongo die.

Oso liburu aproposa beraz maitasunari buruzko modu zintzoan hitz egiteko eta horretan aurreiritzirik gabe pentsatzen hasteko. Ondo legoke irakurri eta gero –edo irakurri baino lehen–, guk gaiari buruzko gure bertsioa idatzi eta lagunartean eztabaidatzea, buruan ditugun estereotipo zaharrak eta balore atzerakoiei astindu pare bat eman ahal izateko.

Erramun Baxok euskaltzale eta hizkuntzalariari omen

80 urte bete ditu Erramun Baxok suhaskundarrak (Nafarroa Beherea). *Bat* aldizkariak urtemuga aitzakia hartu du soziolinguistaren obra eta bizitzari erreposoa egiteko. Baxokek euskara biziki sustatu du erakundeetan; Quebecoko egonaldi luzean hartutako esperientzia baliatu du horretarako. Aldizkarian, hainbat lagunek aitorten gutunak idatzi dizkiote hizkuntzalariari. I



Bat soziolinguistika aldizkaria (67 zk.)
Batzuen artean. Soziolinguistika Klusterra
197 orrialde.

Ekologia zer den, eguzki-autoan

Komiki dibertigarri honek Manuelek hotel ekologiko batean bizi dituen abenturak kontatzen ditu. Eguzki-auto harrigarria asmatu duen doktorea, gaizkile sabotatzaile bi eta lasterketa handi bat, erregai ezin hobeak dira emoziorako. *Eguzkiaren lasterketa* izenarekin kaleratu du Sauré argitaletxeak Txanoa bildumako hirugarren zenbakia. I



Eguzkiaren lasterketa
Txani Rodriguez /
Nacho Fernandez eta
Veronica Rosado
(irudiak).
Sauré argitaletxea.
48 orrialde. 16 euro.